

UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA  
25 URTETIK GORAKOENTZAT ETA 45 URTETIK GORAKOENTZAT

# PROBA OROKORRA

2016ko PROBA



**IRUZKIN**

PROBA

ERANTZUNAK





## Testu honetan oinarrituta, egizu testuaren ostean datorren jarduera

Ikusi duzue Amama filma? Eta entzun Berri Txarrak taldearen azken diskoa? Nola eskuratu dituzue film edo kantu horiek? Internet bidez lortu dituzue? Debalde?

Duela 20 urte, filmak ikusteko zinema aretoetara ala bideo-zinta eroatera/alokatzera joaten ginen. Orain, ordea, Interneti esker, guztia aldatu da. Modu errazean eta azkarrean eskura dezakegu edozein eduki, baina kontsumitzen ditugun eduki gehienak debalde lortzen ditugu. Hau da, ez dugu eduki horien ordainetan ezer ematen. Horrek guztiak zaildu egin du sortzaileen egoera, eta formula berriak asmatzen ari dira irtenbidea aurkitzeko.

Hainbat eduki daude sarean, eta batez ere ikus-entzunezkoak dira deskargatuenak: % 38 filmak dira; musika taldeetako kantu solteak % 24; % 18 futbol partidetakoa saioak, eta % 11 bideo-jolasak, liburuak eta telesailak. Hala eta guztiz ere, egunetik egunera gero eta jende gehiago dago prest Interneteko edukiak eskuratzerakoan ordaintzeko, baina zeren truke?

Gaizka Izagirre kazetaria da, eta astero-astero Argiako Ikusi Makusi, zer ikusi? blogean hainbat telesailen eta filmen inguruan idazten du. Bere lana egin ahal izateko, film eta telesail mordoa ikusten du, baina nola eskuratzen ditu eduki horiek guztiak? Gaizkaren ustez, doan izan behar dute Interneteko edukiek? Kazetariarengana jo dugu, gehiago jakiteko asmoz.

“Nire ustez, denok ulertzen dugu guztia doan izatea ezinezkoa dela, baina, ordaintzen baduzu, zerbait berezia eskaini behar du produktu horrek, esaterako, iragarkirik ez izatea edo jatorrizko hizkuntzan ikusteko aukera eskaintzea. Horrela ez bada, ez du inork erosiko, ezta harpidetuko ere”, esan digu Gaizkak.

Interneten edukiak jartzeko aukerak abantaila asko ekarri ditu. Esaterako, sortzaileen lana hedatzen lagundu du: “Orain dela urte batzuk, zailena jendearengana heltzea zen. Gaur egun errazagoa da hori. Esaterako, web sailen kasuan, proiektua bukatu eta Youtuberen edo Vimeoren bidez argitaratu dezakegu. Hala ere, kompetentzia gogorragoa dago, telesail, pelikula, musika edo disko asko baitaude Interneten eskuragarri, eta lehiakortasun horrek besteengandik bereizi beharra sortzen du”.

Bestalde, Gaizkaren hitzetan, ikus-entzunezko produktuetan kantitateak ez ezik, kalitateak ere gora egin du: “Telesailetan, esaterako, gainerakoetatik bereizteko eduki asko garatzen ari dira, eta horretarako gidoiak eta istorioak izugarri landu eta hobetu dira”. Beraz, Internetek lehia handitzea eta edukiak gero eta hobeak izatea ere ekarri du.

## DESKARGATU ETA KITO?

Edukien sortzaileek irabaziren bat izatea beharrezkoa dute sortzen jarraitzeko. Horregatik, formula berriak bilatzen ari dira. Horietako bat Spotify da eta bestea Netflix. Bi webgune horiek musika entzuteko eta telesail zein filmak ikusteko katalogo digitalak dira, eta hileroko kuota baten truke nahi adina musika, telesail eta pelikula ikusteko aukera eskaintzen dute: “Nik uste ona dela plataforma berri hauek guregana iristea, baina, nire ustez, Internet erabiltzeko ohitura duenak ez ditu edukiak modu honetan kontsumituko. Netflixek sortu duen hasierako irrika bukatzean, kontsumitzaile-mota zehatz batek bakarrik erabiliko duela iruditzen zait”. (...)



Ariane Retegi. Zinea Sortzen.  
(Ikasbil.net gunean jasota)

**Aurreko testuan oinarrituta, idatzi 20-25 lerroko testu bat. Guztira, 200 bat hitz (10 puntu)**

**GAIA:** Zuk nola eskuratzen dituzu film edo kantuak? Internet bidez? Eta debalde?

**Egitekoa:** Zure herriko aldizkarian, herritarren iritzia jakin nahi dute Internetetik deskargatzen diren musika eta firmeei buruz. Iritzi-artikulu bat idatziko duzu gai horri buruz zeure esperientzia kontatuz.

Horretarako, gidoi hau proposatzen dizugu, baina beste gidoi baten arabera ere idatz dezakezu:

- Azaldu zertarako erabiltzen duzun Internet
- Azaldu zuk nola eskuratzen dituzun filmak edo kantuak eta zergatik.
- Debalde ala ordainduta jaisten dituzu Interneteko produktuak?
- Zein dira, zure ustez Interneteko edukiak kobratzeko alderdi onak?
- Eta zein dira alderdi txarrak?...

**Kontuan hartu aholku hauek:**

- Zirriborrea egitea komeni zaizu ideiak antolatzen laguntzeko.
  - Kontuan hartu testu-generoaren egitura:
    - Sarrera idatzi lehenengo paragrafoan.
    - Hurrengo pasarteetan garatu zure ideiak.
    - Azken paragrafoa erabili ondorioak biltzeko.
- Idazlana bukatzen duzunean, errebisatu entregatu baino lehen.  
Zirriborrea azterketarekin batera eman.

**Idazlana zuzentzeko honako ezaugarri hauek balioetsiko dira:**

- Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze maila, testu-generoaren egitura, hizkuntza erregistroa...).
- Ideien garapena eta koherentzia (ideiak ez daitezela kontraesankorrak izan, ezta sakabanatuegiak ere).
- Esaldien eta pasarteen arteko kohesioa (erreparatu puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu antolatzaile eta lokailuei);
- Testuaren zuzentasuna (morfosintaktikoa eta ortografikoa), egokitasuna eta aberastasuna.

**Aurreko testuan oinarrituta, idatzi 20-25 lerroko iritzi-artikulu bat. Guztira, 200 bat hitz (10 puntu)**

**GAIA:** Zuk nola eskuratzen dituzu film edo kantuak? Internet bidez? Eta debalde?

**Egitekoa:** Zure herriko aldizkarian, herritarren iritzia jakin nahi dute Internetetik deskargatzen diren musika eta firmeei buruz. Iritzi-artikulu bat idatziko duzu gai horri buruz zeure esperientzia kontatuz.

Horretarako, gidoi hau proposatzen dizugu, baina beste gidoi baten arabera ere idatz dezakezu:

- Azaldu zertarako erabiltzen duzun Internet
- Azaldu zuk nola eskuratzen dituzun filmak edo kantuak eta zergatik.
- Debalde ala ordainduta jaisten dituzu Interneteko produktuak?
- Zein dira, zure ustez Interneteko edukiak kobratzeko alderdi onak?
- Eta zein dira alderdi txarrak?...

**Kontuan hartu aholku hauek:**

- Zirriborroa egitea komeni zaizu ideiak antolatzen laguntzeko.
- Kontuan hartu testu-generoaren egitura:
  - Sarrera idatzi lehenengo paragrafoan.
  - Hurrengo pasarteetan garatu zure ideiak.
  - Azken paragrafoa erabili ondorioak biltzeko.

Idazlana bukatzen duzunean, errebisatu entregatu baino lehen.

Zirriborroa azterketarekin batera eman.

**Idazlana zuzentzeko honako ezaugarri hauek balioetsiko dira:**

- Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze maila, testu-generoaren egitura, hizkuntza erregistroa...).
- Ideien garapena eta koherentzia (ideiak ez daitezela kontraesankorrak izan, ezta sakabanatuegiak ere).
- Esaldien eta pasarten arteko kohesioa (erreparatu puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu antolatzaile eta lokailuei);
- Testuaren zuzentasuna (morfosintaktikoa eta ortografikoa), egokitasuna eta aberastasuna.

**Honako hauek dira idazlana zuzentzeko kontuan hartuko diren irizpideak:**

**Egokitasuna (2 puntu)**

- Testuak hizkuntza- erregistro egokia du (formala iritzi-artikuluak)
- Testua ondo egokitzen zaio atazak planteatutako helburuari.

**Koherentzia eta kohesioa (4 puntu)**

- Ez du jatorrizko testua parafraseatzen
- Bat dator eskatutako testu-generoarekin: egitura argia eta zehatza du (artikuluak: sarrera du eta ideia nagusiak paragrafotan daude antolatuta. Ondorioa ere gehitu du).
- Gaiari lotutako iritziak ematen ditu eta informazio esanguratsua ematen du.
- Testuan zehar ez du erreferentea galtzen eta anbiguotasuna saihesten du.
- Gaiak testuari batasuna ematen dio, ideiak ez daude sakabanatuta edo
- solte. Ideiak ondo garatzen ditu.
- Ideiak elkarrekin lotuta daude eta lokailu eta testu antolatzaile egokiak erabiltzen ditu.
- Esaldien ordena egokia da eta izenordainak eta anaforak ondo erabiltzen ditu.
- Puntuazioa ondo erabiltzen du.

**Lexikoa, joskera eta morfologia (4 puntu)**

- Lexiko egokia, zehatza eta aberatsa erabiltzen du, sinonimoak baliatzen ditu eta errepikapenak saihesten ditu.
- Ortografia arauak betetzen ditu
- Arau morfosintaktikoak betetzen ditu.



### Puntuaziorako irizpide orokorrak

<b>10-7 puntu</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Testuak informazioa esanguratsua du eta ondo antolatuta dago</li><li>• Argudio ondo garatuak eta esanguratsuak erabiltzen ditu bere iritzia adierazteko.</li><li>• Edukia ondo hautatua bai kantitatez bai kalitatez, gaia ondo garatzen du.</li><li>• Testuak erregistro egokia du.</li><li>• Puntuazio-zeinuak ondo erabilia daude, baita lokailuak eta baliabide anaforikoak ere.</li><li>• Lexiko zehatza eta aberatsa darabil.</li><li>• Ia ez dago ortografia- akatsik (6 baino gutxiago), ez eta hutsegite gramatikalik ere.</li></ul>
<b>6-4 puntu</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Testuak zenbait akats dituen arren (edukian eta forman) ondo jarraitzen da, hau da, akatsek ez dute oztopatzen ulermena.</li><li>• Argudio batzuk errepikatzen dira edo ez daude ondo garatuta.</li><li>• Paragraforen bat edo ez dago ondo egituratuta.</li><li>• Testua ongi ulertzeko informazio atalen bat falta da; informazioa errepikatuta ageri da edo garrantzirik ez duen informazioa ageri da batzuetan (betelana).</li><li>• 6 ortografia akats baino gehiago daude, ideiak adierazteko eran ere forma akatsak antzematen dira batzuetan, testu atal batzuk nahasiak.</li></ul>
<b>4 puntu baino gutxiago</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Testuak ulermen globala eragozten duten oinarritzko akatsak ditu.</li><li>• Koherentzia-, kohesio-, zuzentasun- edo/eta egokitasun-akatsak daude.</li><li>• Ageri-agerikoak dira gabezia komunikatibo eta linguistikoak.</li></ul>